

OHIKO ETA EZOHIKO BATZAR NAGUSIEN DEIALDIA

MUTUALIA Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2 zk.ko Mutuaren Zuzendaritza Batzordeak haxe erabaki du aurtengo martxoaren 22an eta maiatzaren 28an egindako bileretan, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 86. artikuluetan eta Estatutuetako 22. eta 23. artikuluetan xedatutakoari jarraituz: empresario kideei **Ohiko eta Ezohiko Batzar Nagusietarako** deialdia egitea. Datorren **uztailaren 20ean egingo dira hurrenez hurren, 11:30ean lehen deialdia eta bigarren 12:00etan, Donostian, Pakea Klinikari (Arriola pasealekuan, 26).**

Ohiko Batzar Nagusiaren gai zerrenda

1. Presidentearen agurra.
2. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa-txostena, ondare historikoaren dotazioak eta aplikazioak, memoria, balantzeak eta emaitzen kontuak onartu, hala badagokio, Gizarte Segurantzaren Kontu Hartzailetza Nagusiaren ikuskaritza-txostenak jakinarazi ostean. Era berean, 2017ko emaitza ekonomiko positibo eta soberakinaren aplikazioa.
3. Jakinarazi eta onartu, hala badagokio, 2019ko aurrekontuen aurreproiektua eta Zuzendaritza Batzordeari Gizarte Segurantzako Aurrekontuen Proiektuan beharrezkoak diren aldaketak egiteko eskubidea.
4. Zuzendaritza Batzordeko kideak izendatu eta berritu.
5. Prestazio Berezien Batzordearen kudeaketaren berri eman.
6. Bilerako akta berresteko eta onartzeko bi ikuskatzaile izendatu.
7. Presidentearen hitzaldia.
8. Norberak leharkeena.

Ezohiko Batzar Nagusiaren gai zerrenda

1. Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, onartu indarrean dauden erakundearen Estatutuen aldaketak, abenduaren 26ko 35/2014 Legean xedatutakoarekin bat egin dezaten; horren bidez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina aldatzen da lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateen araubide juridikoari dagokionez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuan txertatuta dago.
2. Aurreko proposamena onartzen bada, Zuzendaritza Batzordeari baimen zabala eta zehatza eman, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak proposatutako iruzkinak, aldaketak edota zuzenketak Estatutuen testuan txertatzeko.
3. Bilerako akta berresteko eta onartzeko bi ikuskatzaile izendatu.

Memoria, balantzeak eta emaitzen kontuak –Gizarte Segurantzaren Kontu Hartzailatza Nagusiaren ikuskaritza txostenak jakin ostean– mutuaren webgunean ikus daitezke (www.mutualia.es), Batzar Nagusiaren aurreko 15 egunetan azken horiek Mutualiari jakinarazi bazaizkio, eta jakinarazpenaren datatik aurrera beti.

Legitimazioa egiaztatzeko ezarri beharreko era eta baldintzak:

Mutualiako enpresario kide guztiek izango dute parte hartzeko eskubidea, betiere batzar nagusiaren egunean elkartzeko hitzarmena indarrean badute, hala ere betebeharrak sozialak egunean dituztenek baino ez dute bozkatzeko eskubiderik izango.

Bertaratzeko eta botoa emateko eskubidei dagokienez, jakinarazten dizuegu Mutualiaren egoitza sozialean eta operatiboan kontrol-erregistroa dagoela, Batzar Nagusiaren datarekin eguneratuta dagoena. Erregistro honetan, enpresario kideen zerrenda dago, baita betebeharrak sozialak egunean dituzten enpresena ere. Eskakizun horiek egiaztatu ahal izango dira elkartze dokumentua eta GSDN ziurtagiriaren bidez.

Mutuako kide diren enpresarioek, beraiek edo eskuordetze bidez, Batzar Nagusietan parte hartu nahi badute, bertaratzeko edota botoa eskuordetzeko txartela eduki beharko dute. Txartel hori Mutualiaren zentroetan eskura daiteke, edo, bestela, www.mutualia.es webgunean. Eskuordetze botoa Mutualiaren kide den beste enpresario baten esku baino ezin daiteke utzi.

Zalantzaren bat baduzu edo zerbait kontsultatu behar baduzu, deitu zenbaki honetara: 944 252 503.

Bilbon, 2018ko maiatzaren 29an

Zuzendaritza Batzordearen izenean

PRESIDENTEA